

DEIALDIA, EUSKARA DAKIEN PERTSONA BAT ADMINISTRAZIO-ARAUBIDEAN ETA OPOSIZIO BIDEZ KONTRATATZEKO, MANTENTZE LANETAKO ETA ZERBITZU ANITZETAKO OFIZIAL LANPOSTURAKO ALDI BATERAKO LANPOSTU HUTSA BETETZEKO, ETA, ERA BEREAN, IZANGAIEN ZERRENDA BAT ERATZEKO, BERAKO UDALEAN ETORKIZUNEAN SORTUKO DIREN BEHARRAK BETETZEKO.

1. oinarria. Arau orokorrak.

1.1.- Oinarri hauek arautzen dituzte euskara dakien pertsona bat administrazio-araubidean, eta oposizio bidez, kontratatzeke baldintzak, mantentze lanetako eta zerbitzu anitzetako ofizialaren plazaren aldi baterako lanpostu hutsa betetzeko eta, era berean, izangaian zerrenda bat eratzeko, Berako Udalean etorkizunean sortuko diren beharrak betetzeko.

1.2.- Deialdi honen bidez kontratatzen den izangaia administrazio-araubidean kontratatutako langilea izango da, bitarteko lan-kontratuarekin, eta Gizarte Segurantzako erregimen orokorrean afiliatu eta alta emango zaio. Kontratazioa Nafarroako administrazio publikoetan administrazio-araubideko langileen kontratazioa arautzen duen irailaren 28ko 68/2009 Foru Dekretuan aurreikusitakoaren arabera egingo da.

1.3.- Lanpostuak C mailari dagozkion ordainsariak izango ditu araudi honetan ezarritakoaren arabera: uztailaren 4ko 158/1984 Foru Dekretuaren bidez onartutako Ordainsarien Behin-behineko Araudia, Berako Udalarari aplikatu beharreko gainerako xedapenak eta plantilla organikoan agertzen diren osagarriak.

1.4.- Oro har, lanpostuan bete beharreko eginkizunak eta lanak langilearen mailari eta kategoriari dagozkionak izango dira, eta, bereziki, honako hauek:

- Uren arloa.

- Oro har, herriko uraren kontsumoa eta kalitatea zaindu eta aztertu, egon daitezkeen jarioak, kutsadurak (klororik eza) eta abar antzemateko eta arazoak konpontzeko. Horniduraren hobekuntzak proposatu, bai kontrolari dagokionez, bai mantentze lanei eta konponketei dagokienez.

- Sarearen egoera ikuskatu. Egunero zaindu hornidura-sistemaren funtzionamendua: deposituak, ponpatzeak, mailak eta kontsumoak, ...

- Kloroaren analisia. Kloroaren eguneroko analisia egin eta Osasun Sailari bidali hilean behin. Kalitate-arazoei buruzko osasun-errekerimenduak konpondu.

- Ur-hartuneen egoera egiaztatu. Ur-hartuneak egoera onean daudela berrikusi, eta behar bezala funtzionatzeko behar diren lanak antolatu eta egin. Hobeto funtzionatzeko hobekuntzak proposatu. Ur-hartune eta kutxetarako irisgarritasuna berrikusi, eta horretarako behar diren lanak antolatu eta egin. Harguneetarako sarbideak gutxienez urtean behin garbitu. Gainerako ur-hartuneak aldi behin garbitu, matxurarik ez badago (Ibardingo deposituek 2 ur-hartune dituzte, guztira 4; Kaxernako ur-hartunea, berriz, Matxaingo errekatik dator; Zalaingo deposituak lau ur-hartune ditu). Ur-biltegiak garbitzea eta estankotasun-probak egitea (guztira 6 dira, Zalain, Ibardin (2), Kaxerna, Mitxinborda eta Ezpondekoborda).



- Ur-eroanbideak. Emariak kontrolatu eta ihesak hauteman eta konpondu, sarearen eraginkortasuna hobetzeko. Mantentze prebentiboa (herdoiltze eta zahartze arazoak dituzten hodiak aldatzea). Hodiak garbitzeko deskargak hustu. Ihesak eta ur-gastuak kontrolatzeko giltzak jarri. Ur-sareko obrak eta konponketak gainbegiratu eta kontrolatu, planoak eguneratu eta aldaketen berri eman arduradunari.

- Urarekin zerikusia duten hainbat informazio eta zerbitzu eman herritarrei. Aldez aurretik dagokion lizentzia lortu dutenen ur-sarera lotzeko prozesua gainbegiratu. Ur-horniduraren inguruko eskariei erantzun.

- Mantentze orokorreko arloa eta biomasa galdarak.

- Mantentze eta konponketa lanak egin: iturgintza, elektrizitatea. Igeltserotza lanak, azpiegiturak eta udal eraikinak pintatu.

- Bero-sareko eta Udaletxeko biomasa galdaren mantentze lanak egin.

- Beste batzuk.

- Brigadarekin lankidetzan aritu agintzen zaizkion lanetan.

- Azaldutakoez gain, agintzen zaizkion beste zeregin batzuk egin, lanpostuak eskatzen dituen gaitasun profesionalekin bat etorritz.

1.5.- Lan ordutegia deialdia egin duen administrazioak ezarritakoa izango da, eta zerbitzuaren beharren arabera egokituko da beti, administrazioak aldatu ahal izango duelarik. Zerbitzuaren ezaugarriak direla eta, sarritan gorabeherak izaten dira lanaldi arruntetik kanpo (kloratzaileen alarmak, jarioak, matxurak, etab.), bai lanegunetako arratsaldeetan eta gauetan, baita asteburuetan eta jaiegunetan ere. Horregatik, kontratatutako langileak aldi jakin batzuetan egon beharko du lanerako prest, eta aldi horiek plantillako beste langile batekin txandakatuko dira.

1.6.- Baldintza hauen 8. oinarrian ezarritako hautaprobak egingo dira.

1.7.- Euskararen ezagutzari dagokionez, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C1 eskatuko da ahozko gaitasunetan eta B2 idatzizko gaitasunetan.

1.8.- Probak gainditzen dituzten izangaiei deitu ahal izango zaie Berako Udalean sortzen diren beharrak betetzeko: baja medikoak, oporrak, baimenak, eszedentziak edo antzekoak orkezkatzeko. Egingo diren kontratuak administrazio-araubideko aldi baterako kontratuak izango dira.

2. oinarria. Izangaiek bete beharreko baldintzak (eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean):

a) Espainiako herritarra izatea, edo Europar Batasuneko beste estatu batekoa, edo langileen joan-etorri askea aplikatzen den eremuko estatu batekoa, Europar Batasunak sinatu eta Espainiak berretsitako nazioarteko tratatuak direla medio.

Espainiarren eta Europar Batasuneko beste estatu bateko edo aipatu nazioarteko tratatuek ukitutako estatuetakoa herritarren ezkontideek ere parte har dezakete, zuzenbidez

bereizita ez badaude. Era berean, haien ondorengoek eta ezkontidearenek, legez bananduta ez badaude, hogeita bat urtetik beharakoak badira, edo gorakoak, haien kontura biziz gero.

b) Hamasei urte beteak izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko ezarritako adina gaintutia ez izatea.

c) Batxilergoko titulua, bigarren mailako lanbide-heziketako titulua, goi-mailako teknikariaren titulua (goi-mailako prestakuntza-zikloa) edo titulu baliokidea izatea, edo eskuratzeko moduan egotea (titulua lortzeko eskubideak ordaindu izanaren frogagiriaren bidez).

Adierazitako titulazioen baliokideak diren ikasketak alegatzen dituzten izangaiek baliokidetasun hori aitortzen duen legezko edo arauzko xedapena aipatu beharko dute, edo Hezkuntza eta Lanbide-heziketako Ministerioak horri buruz emandako ziurtagiria aurkeztu beharko dute.

Atzerrian lortutako tituluak badira, homologazioaren frogagiria eduki beharko du.

d) Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C1 maila (edo baliokidea) egiaztatzen duen titulua izatea. Aipatutako titulaziorik ez duten pertsonak baldintza hauen 1.7 oinarrian eskatzen den hizkuntza maila proba bat gaintuz egiaztatu ahal izango dute. Proba hori Foru Komunitateko Administrazioak egingo du eta interesdunek deialdian parte hartzeko eskabidea aurkezten dutenean eskatu beharko dute (I. eranskina).

e) Eginkizunak betetzeko behar den gaitasun fisikoa eta psikikoa izatea.

f) Eginkizun publikoak betetzeko ezgaituta edo etenda ez egotea, eta administrazio publiko baten zerbitzutik bereizita ez egotea.

g) Ibilgailuak gidatzeko B motako baimena eduki beharko dute. Baldintza hau bete beharko dute hautaketa prozesuan zehar eta kontratazioaldian zehar.

h) Edozein enplegu bulegotan enplegu-eskatzaile edo enplegu-hobekuntzako eskatzaile gisa izena emanda egotea.

3. oinarria. Prozedura.

Nafarroako administrazio publikoetan sartzeko Erregelamenduaren 42. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz (ekainaren 5eko 113/1985 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen erregelamendu hori), aldi baterako langileak hautatzeko prozedurek kontratazioa ahalik eta arinen egitea ahalbidetu beharko dute.

Presazko kasu bat da hau, deialdia egin duen administrazioarentzat ezinbestekoa baita 2021eko abenduaren 31n sortuko den lanpostu hutsa beteko duen pertsona bat izatea, herritarrei ur-horniduraren zerbitzua behar bezala emateko. Horregatik, Doneztebeko Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bulegoari enplegu-eskatzaileen zerrenda bat eskatuko zaio, deialdiaren 2. oinarrian aipatzen diren baldintzak betetzen dituztenak (enplegu-hobekuntzako eskatzaile gisa daudenak barne), eta dagozkien hautaprotetan parte hartu ahal izango dute.



Zerrenda horretan ez dauden pertsonak ere onartuko dira frogetan, baldin eta adierazitako baldintzak betetzen badituzte.

4. oinarria. Eskabideak.

4.1.- Deialdi honetan parte hartzeko eskabideak Berako Udaleko Erregistroan aurkeztu ahal izango dira, edo, bestela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako edozein bide erabilita. Azken kasu horretan, izangaia posta elektronikoz jakinarazi beharko dio inguruabar hori Berako Udalari, 24 orduko epean (bera@bera.eus).

Gainera, eskabidea posta bulego batean aurkezten bada, gutun-azal irekian egingo da, posta zerbitzuko langileek, ziurtatu aurretik, data eta zigilua jar diezaioten eskabideari.

4.2.- Eskabideak deialdi honen I. eranskinean agertzen den ereduaren arabera izanen dira, eta haietan izangaiek adierazi behar dute betebeharrak guzti-guztiak betetzen dituztela eskabideak aurkezteko epearen azken egunean.

4.3.- Interesdunek **2021eko azaroaren 12ra** arte aurkeztu ahal izango dituzte eskabideak. Epea azaroaren 12ko ordu hauetan amaituko da:

- Aurkezpen pertsonala Berako Udaleko Erregistroan: **13:30**.

- 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako gainerako bitartekoen bidez aurkezten bada: **13:30**.

4.4.- Eskabidearekin batera dokumentazioa konpultsatua aurkeztu behar da: Nortasun Agiri Nazionala, 2 c) oinarrian eskatutako titulazioa, euskarako titulazioa (hala badagokio), edo eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean horiek lortzeko moduan daudela egiaztatzen duten agiriak, B motako gidabaimena, eta enpleguaren edo hobekuntzaren eskatzailea dela egiaztatzen duen agiria.

4.5.- Minusbaliotasuna duten izangaiek minusbaliotasun-egiaztatzea aurkeztu beharko dute parte hartzeko eskabidearekin batera, organo eskudunak emana, eta, horrekin batera, ziurtagiri mediko bat aurkeztu beharko dute, egiaztatzeko desgaitasun hori ez dela lanpostuan normaltasunez jarduteko ezgaitzen duen gaixotasun edo akats fisiko edo psikiko bat.

5. oinarria. Behin-behineko zerrendak.

5.1.- Eskabideak aurkezteko epea amaituta, Berako Udaleko alkateak ebazpena emanen du izangai onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onesteko, eta jendaurrean jarriko da Berako Udalaren iragarki-taulan, bai eta Udalaren web-orrian ere. Izangaiek bost egun baldioduneko epea izanen dute, taulan jartzen denetik hasita, erreklamazioak aurkezteko edo eskabidean egindako akatsak zuzentzeko. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin-behineko zerrenda behin betiko bihurtuko da, eta argitaratzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

5.2.- Onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrendarekin batera, euskara proba, hala badagokio, eta deialdi honen 8. oinarrian aurreikusitako hautaketa probak egiteko eguna eta tokia jakinaraziko dira Berako Udalaren iragarki-taulan eta web-orrian.

6. oinarria. Behin betiko zerrendak.

Erreklamazioetarako epea bukatutakoan eta haiei erantzun ondotik, alkateak ebazpena emango du, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onesteko, eta taulan eta Berako Udalaren web-orrian argitaratuko da.

7. oinarria. Epaimahai kalifikatzailea.

7.1.- Honako kide hauek osatuko dute epaimahai kalifikatzailea:

- Epaimahaiburua: Aitor Elexpuru Egaña, Berako Udaleko alkatea.
Ordezkoa: José Esteban Aguirre Zubieta, Berako Udaleko alkateordea.
- Mahaikidea: Miguel J. Belarra Tellechea, Berako Udaleko idazkaria.
Ordezkoa: M. Jose Larrayoz Ariztegui, Lesakako Udaleko idazkaria.
- Mahaikidea: Maite Mangado Oyanarte, udal arkitekto teknikoa.
Ordezkoa: M Dolores Oyarzabal Zubieta, Berako Udaleko kontu-hartzailea.
- Mahaikidea, Berako Udaleko langilegoa ordezkatuz: Mattin Leiza Larralde, udal agentea.
Ordezkoa: Gemma Mitxelena Agesta, Berako Udaleko administraria.

7.2.- Epaimahaia ezin izango da eratu, ezta jardun ere, gutxienez kideen gehiengo osoa bildu gabe. Idazkaria izendatuko da kideen artean. Epaimahaiak gehiengoz ebatziko ditu deialdiko oinarrien interpretazio eta aplikazioari buruz sortzen diren gorabeherak. Era berean, epaimahaiak aholkulari adituen laguntza izan dezake proba batzuetan nahiz guztietan.

8. oinarria. Probak.

8.1.- **Euskara proba.** Oposizio aldia hasi aurretik, euskara proba egingo zaie baldintza hauen 1.7 oinarrian eskatzen den ezagutza agiri bidez egiaztatu ez duten izangaiei.

Proba hori baztertzailea izango da, Euskarabideak egingo du, eta izangaiak eskatutako hizkuntza-maila duen ala ez zehazteko azterketak egin beharko dira. Gai edo ez gai kalifikatuko da, eta gainerako probak egin ahal izateko baldintza izango da hori egitea. Egin behar izanda probara agertzen ez diren pertsonak baztertuta geratuko dira.

8.2.- **Proba teorikoa:** idatzizko ariketako galdera labur batzuei eta/edo test motako galdera batzuei erantzun beharko zaie. Ariketa hori euskaraz eta/edo gaztelaniaz izan daiteke, eta II. eranskinetako gai zerrendan jasotako gaiei buruzkoa izango da.

Ariketa plika itxien sistemaren bidez egingo da, eta alde aurretik jakinaraziko den jendaurreko ekitaldian irekiko dira.

Proba hori egiteko gehienezko denbora epaimahaiak erabakiko du, eta gehienez **40 puntu** lortu ahal izango dira. Galdera guztien hasierako balorazioa berdina izango da. Gutxienez 20 puntu lortzen ez dituztenak baztertuak geratuko dira. Erantzun okerrak ez dira zigortuko.



Probaren kalifikazioa bukatu ondoren, epaimahaiak Berako Udaletxeko iragarki-taulan eta Udalaren webgunean argitaratuko du gainditu dutenen eta gainditu ez dutenen zerrenda, lortutako guztizko puntuazioaren arabera.

8.3.- **Proba praktikoa:** II. eranskineko gai zerrendako gai bat edo batzuei buruzko ariketak landan edo ikasgelan egin beharko dira.

Proba hori egiteko gehienezko denbora epaimahaiak erabakiko du, eta gehienez **40 puntu** lortu ahal izango dira. Gutxienez 20 puntu lortzen ez dituztenak baztertuak geratuko dira.

Probaren kalifikazioa bukatu ondoren, epaimahaiak Berako Udaletxeko iragarki-taulan eta Udalaren webgunean argitaratuko du gainditu dutenen eta gainditu ez dutenen zerrenda, lortutako guztizko puntuazioaren arabera.

8.4.- Azterketarako deialdia dei bakarraren bidez egingo da, eta pertsona bakoitzak Nortasun Agiri Nazionala edo epaimahaiak nahikotzat jotzen duen beste identifikazio-agiri bat eraman beharko du berekin. Agertzen ez diren izangaiek oposiziotik kanpo geldituko dira.

8.5.- Hautaprobak egiteko, desgaitasun aitorturen bat dutenendako bidezkoak diren denbora eta baliabide egokitzapenak jarriko dira, eskabidean azaldutakoaren arabera.

9. oinarria. Gainditu dutenen zerrenda.

9.1.- Hautagaien kalifikazioa amaitutakoan, epaimahaiak Berako Udaletxeko iragarki-taulan eta webgunean argitaratuko du aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrenda, lortutako puntuazioaren arabera.

9.2.- Gainditu duten izangaien artean puntuazioan berdinketarik gertatuz gero, proba praktikoen puntuazioaren arabera ebatziko da, eta berdinketak bere horretan badirau, proba teorikoaren arabera. Jarraitzen badu, zozketa publiko bidez ebatziko da.

9.3.- Ondoren, epaimahai kalifikatzaileak hautaketa prozesuaren ondoriozko aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrenda bidaliko dio Alkatetzari, oraingo lanpostu hutsa betetzeko eta, ondoren, Berako Udalean sortzen diren beharrak betetzeko deiak egin ahal izateko.

9.4.- Hautaprobetan lortutako puntuazio handienaren arabera ezarriko da izangaien zerrendako hurrenkera.

9.5.- Hautaketa prozesu honen babesean eraturako zerrenda, gehienez ere, bost urtez egongo da indarrean, onartzen denetik hasita. Zerrenda indarrean dagoen bitartean beste zerrenda batzuk eratzten badira lanpostu bererako, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bidez hautaprobetarako deialdia eginez, zerrenda berrienetako izangaiek lehentasuna izango dute zaharreneetan daudenen aurretik.

10. Zerrendaren kudeaketa. Deiak.

10.1.- Deiak egiteko arau orokorrak.

10.1.1.- Errazago aurkitu ahal izateko, izangaiek harremanetarako telefono bat bederen jakinarazi beharko dute. Horrez gainera, harremanetarako beste telefono batzuk edo helbide elektronikoko bat eman ditzakete. Informazio horrek etengabe eguneratua egon beharko du.

10.1.2.- Izangaiei deitzeko orduan, 9.4 puntuan ezarritako lehentasun irizpideak hartuko dira kontuan.

10.1.3.- Oro har, telefonoz kontratu bat eskaintzeko, gutxienez hiru saiakera eginen dira izangai bakoitzarekin, hark jakinarazitako bideak erabiliz, eta deiak egun bateko epean banatuz. Dei bakoitzaren oharra jasoko da, gorabeherak, eguna eta ordua aipaturik.

10.1.4.- Izangai batekin harremanetan jarri eta kontratatzeko eskaintza eginez gero, erantzuten ez badu, uko egiten diola ondorioztatuko da eta 10.2 puntuan xedatutakoa aplikatuko zaio.

10.1.5.- Izangai batekin harremanetan jartzerik ez bada, zerrendan hurrengoa denari deituko zaio, harik eta eskaintzen diren lanpostu guztiak bete arte. Harremanetan jartzerik izan ez duten izangaiek zerrendan zuten postuari eutsiko diote.

10.1.6.- Eskaintzari baietz esan nahi dion izangaia ezarritako epean lanean hastea onartu behar du.

10.1.7.- Kontratu bat onartzen duten izangaiei ez zaie beste lanpostu batean aritzeko kontraturik eskainiko.

10.2.- Kontratatzeko eskaintzari uko egitea.

10.2.1.- Izangairen batek eskaini zaion lanpostuari uko egiten baldin badio, zerrendatik at geratuko da, salbu eta ondoko egoera batean dagoela frogatzen badu:

a) Indarrean dagoen izendapen, kontratu administratibo edo lan kontratu batengatik horretara behartua egotea.

b) Aldi baterako ezintasun egoeran izatea edo umea izan edo adoptatzeagatik lizentzia izatea. Arrazoi hori dela kausa kontratu bati uko egiten dioten izangaia ez dira berriz deitzeko moduan egonen, harik eta behar bezala frogatu arte uko egitea justifikatu zuen egoera bukatu dela.

c) 3 urte baino gutxiagoko semea edo alaba, norberak izandakoa zein adoptatua, zaindu beharrean egotea. Arrazoi hori dela kausa kontratu bati uko egiten dioten izangaia ez dira berriz deitzeko moduan egonen, harik eta kontratuari uko egin zioten egunetik gutxienez hilabete bat igaro arte, salbu eta hura eragin zuen arrazoia lehenago desagertzen bada.

d) Bigarren gradura arteko odol- edo ezkontza-ahaide bat, adina, istripua edo eritasuna dela-kausa bere burua ezin gobernatu duena, zaindu behar izatea. Arrazoi hori dela kausa kontratu bati uko egiten dioten izangaia ez dira berriz deitzeko moduan egonen, harik eta kontratuari uko egin zioten egunetik gutxienez hilabete bat igaro arte, salbu eta hura eragin zuen arrazoia lehenago desagertzen bada.



e) Izangaia ezkondu berria edo, Bikote Egonkorrentzako Berdintasun Juridikoari buruzko uztailaren 3ko 6/2000 Foru Legearen arabera, parekatutako egoeran sartu berria izatea, eskaintako kontratuaren hasiera eguna bikotea eratu ondoko edo eratu aurreko hamabost egun naturaletan bada.

f) Desgaitasunen bat behar bezala onartua izatea eta desgaitasunaren ezaugarriak bateraezinak izatea eskaintzen zaion lanpostuaren ezaugarri bereziekin.

10.2.2.- Aurreko idatz-zatian jasotako kasuetan, izangaiek zerbitzu emateko moduan daudela jakinarazi beharko dute. Jakinarazpen hori egin bitarte, izangaiek ez dira deitzeko moduan izanen, eta ez zaie inolako lanposturik eskainiko sartuta dauden zerrendetatik.

10.2.3.- Puntu honetako 1. idatz-zatian (10.2.1) adierazitako egoeretako batean dauden izangaiek aste bateko epea izanen dute, uko egiten dioten lanpostua eskaintzen zaien egunetik, agiri bidez eta behar bezala justifikatzeko. Hala eginez gero, lanpostuari uko egin ziotenean zerrendan zuten toki berean jarraituko dute.

10.3.- Zerrendetatik baztertzea. Deia eragiten duen zerrendatik baztertuko dira ondoko egoera hauetako batean dauden izangaiek:

- a) Eskaintako lanpostuari arrazoirik gabe uko egitea.
 - b) Dei egin eta lanpostua onartu ondotik, kontratua ez sinatzea, izangaiari egotzi beharreko arrazoiengatik.
 - c) Probaldia ez gainditzea.
 - d) Sinatutako kontratuari uko egitea.
 - e) Sei hileko epean izangaiarekin harremanetan jartzea ezinezkoa izatea, hark emandako telefonoaren edo helbide elektronikoen bidez kontratatzeak deiak behin eta berriz eginda ere.
 - f) Berako Udalean eta haren erakunde autonomoetan funtzionario gisa edo lan kontratatu gisa sartzea lanpostu berean edo maila altuagoko beste batean jarduteko.
 - g) Lanpostua bertan behera uztea.
 - h) Kontratua amaitzea gerora sortutako arrazoiak direla kausa, hain zuzen, kontratatzen den langilea lanpostuan aritzeko gaitasun edo egokitzapen faltagatik, horrek lanpostuak dituen eginkizunak eraginkortasunez betetzea galarazten duen errendimendu eskasa badakar.
8. oinarria. Kontratazioa egiteko izangaiei zerrenda.

11. oinarria. Datuen babesari buruzko informazioa.

Datuen tratamenduaren arduraduna:

Identitatea: Berako Udala.

Helbidea: Herriko Etxeko plaza 1, 31780, Bera

Telefonoa: 948 630005

Posta elektronikoa: bera@bera.eus

Datuak babesteko ordezkaria: dpd@bera.eus

Helburua: Enplegu deialdiak kudeatu, botere publikoen erabileraren baitan.

Oinarri juridikoa: 251/1993 Foru Dekretu Legegilea, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileriaren Estatutuaren Testu Birbildua onesten duena.

Datuak mantentzeko denbora: Datuak gordeko dira aipaturako helburua lortzeko behar den denborean eta Udalak tratamenduari buruzko erantzikuzunak dituen bitartean. Gainera, Artxibo eta dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legean araututakoa bete behar da.

Datuen hartzaileak: Datuak eman ahalko dira epaile eta auzitegiei, indarrean dagoen legedia konplutuz, eta argitaratuko dira udal web orrian eta iragarki oholetan, deialdian ageri den bezala.

Eskubideak: Sarbide, zuzentze eta baliogabetze eskubideak lehen aipaturiko helbidea erailiz. Gainera, erreklamazioa aurkezten ahal da Datuen Babeseko Espainako Agentziaren aurrean: Jorge Juan, 6, 28001 (Madril) edota www.agpd.es

12. oinarria. Errekurtsoak.

Deialdi honen oinarrien aurka edo berau aplikatzeko egintzen aurka, hautara, ondoko errekurtsoetako bat aurkez daiteke:

a) Berraztertze errekurtsoa, egintza burutu duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean, hura jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari zuzendua, bi hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hasita.

c) Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, erabakia argitaratu edo errekurritu nahi den ekintza jakinarazten denetik hasita.

Gainera, epaimahaiaren egintzen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkezten ahalko da, berako Udaleko alkate udalburuari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazi ondotik.

Bera, 2021eko urriaren 27a.

Alkatea,
Aitor Elexpuru Egaña.

EGINBIDEA: Jasota uzteko agiri hau urriaren 27ko 317/2021 Alkatetzaren Ebazpenaren bidez onartu dela.

**Bera, 2021-10-27.
SINADURA DIGITALA.
IDAZKARIA,
Miguel J. Belarra Tellechea.**



I.ERANSKINA ESKABIDE EREDUA

Izena: ,
adinez nagusia, NAN zenbakia: , jaioteguna: ,
jaioterria: (.....), nazionalitatea:
....., egungo helbidea: (.....), kalea:
..... zenbakia: , posta kodea: , telefonoa:
....., helbide elektronikoa: ,
zure aurrean agertu eta

AZALTZEN DUT:

Deialdi honetan onartua izatea eskatzen dudala: euskara dakien pertsona bat administrazio-araubidean, eta oposizio bidez, kontratatzeko mantentze lanetako eta zerbitzu anitzetako ofizialaren plazaren aldi baterako lanpostu hutsa betetzeko eta, era berean, izangaiei zerrenda bat eratzeko, Berako Udalean etorkizunean sortuko diren beharrak betetzeko.

Lanpostuan aritzea galarazten didan eritasun edo urritasun fisiko edo psikikorik ez dudala.

Indarra duten xedapenetan ezarritako ezintasunetako bakar bat ere ez dudala.

Ez nautela ezein Administrazio Publikoren zerbitzutik bereizi disziplina espediente bidez, eta ez nagoela ezgaituta eginkizun publikoak betetzeko.

Deialdiaren 2. oinarrian eskatutako titulazioaren frogagiria aurkeztu dudala, baita B motako gidabaimena ere.

Ezarritako baldintza guztiak betetzen ditudala, eskabideak aurkezteko epearen azken egunerako.

Euskara maila frogatzen dut. (*Adierazi X batez zein den*).

Euskara proba egin behar dut. (*Adierazi X batez zein den*).

Elbarritasuna dut eta, beraz, aipatzen dudan egokitzapena eskatzen dut, azaltzen ditudan arrazoiengatik. (*Beste orri batean zehaztuko dira minusbaliotasunaren arrazoiak eta eskatutako egokitzapenak*). (*Adierazi X batez hala bada*).

Berako Udalari baimena ematen diodala sakelako telefonoa erabiltzeko deiak egiteko.

HORRENBESTEZ, eskatzen dut eskabide hau onar dadila.

(Data eta sinadura)

BERAKO UDALEKO ALKATEA.

Datuen babesa. – Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoa betez, jakinarazten zaizu inprimaki honetan emandako datu pertsonalak hautaketa prozedurako udal eskumenak gauzatzeko baino ez direla erabiliko, eta Udal honetako datu-basean sartuko direla. Datu-base horren aurrean erabili ahal izango dituzu datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideak. Horretarako, Erregistro Orokorreara jo behar duzu.

II. ERANSKINA

Gai zerrenda

1.- Ur-hornidura: deposituak eta sareak. Sarearen elementuak. Balbula, kloragailu eta neurketa- eta kontrol-elementu motak. Mantentze irizpideak. Berako hornidura-sarea (hartuneak eta deposituak).

2.- Saneamendu-sareak. Sare motak, materialak, kolektoreen ezaugarriak eta erregistro-elementuak. Mantentze irizpideak.

3.- Eraikinetako iturgintza eta berokuntza. Sanitarioak, txorrotak, zisternak, sifoiak, berokuntza-zirkuituak, zirkuituetan airea bete eta purgatzea, galdara-gelak eta horien elementu bereziak. Energia aurreztearen eta ingurumenaren kontzeptuak.

4.- Igeltserotza. Produktuen, tresnen eta materialen oinarrizko ezagutza eta erabilera. Obrak seinaleztatzea. Planoak interpretatzea. Eraikinak kontserbatzea, zuinketa eta eremu publikoko elementuak konpontzeko obra txikiak.

5.- Laneko arriskuen prebentzioa. Lanbideen eta lanen arriskuak hautematea eta ebaluatzea. Norbera eta taldea babesteko bitartekoak.

6.- Berako geografia (mendiak, ibaiak...). Berako mugak. Berako kale, auzo eta baserrien izena.

